




# NOLAKO MINA

Doinua: Lurraren pean sar nindaiteke

Neurria: Bost puntuko handia (ip) / Hamarreko handia (hg)

Gustatzen zaizun pertsona hori, juxtu, zure lagun minarekin irteten hasten denean (Lurraren pean sar nindaiteke...).



Joanes Etxebarria

- 1** Ahalke gorritz jauntsi niz zeren uste ez nūan **bezala** ikusi beitūt maite dūdana niganik hūrrūn **doala** aski ez balitz, ene lagun bat zaio jagoiti **leiala** batak bihotza erdiratū deit besteak moztū **hegala** ez dakieia ni baztertzeak min emaiten **deitadala?** (bis)
- 2** Adiskidea nūana ez da haboro ene **adiskide** ata etxetik eskola artino bien artean zonbat **bide...** “Maitatzen nūan pertsona hartū deitadak ta kaka **hire!**” Ez futboleant, ta ez bizian ez hiz haboro **taldekide** ta espero dūdan bezala bada laster berexiko **zide.** (bis)
- 3** Ene bihotza ezarri dūanari ikasurte hontan **sūtan:** “Amodiorik ez dūt nik haboro sekūla ezarriko **zūtan** sekūla ez dūzū, orai jakinen nik zonbat xarma **badūtan** eta ohartzen baldin bazira ikusten naūzūn **lekūtan** nigar egiten ahalko dūzū beste norbaiten **eskūtan!**” (bis)
- 4** Ene tū eta herrak igorri ondotik hiru **kobletan** malerusena egia erran ni nizate **urteetan** lagun bat eta, maitea galtzez nahigabe triste **hontan** bürüa apal egon beharko eskolan aire **hartzeetan** ūken artino lagun berri bat ta maite bat **besoetan!** (bis)

